

Justizia, Margarita Roblesen begiradapean

(Justice from the perspective of Margarita Robles)

GARMENDIA IARTZA, Koro

Eleria-ko idazkari teknikoa
Eusko Ikaskuntza
Miramar jauregia. Mirakontxa, 48
20007 Donostia
eleria@sk.ehu.es

BIBLID [1137-1951 (2000), 6; 67-71]

Margarita Robles magistratuak Forum Deusto saioaren baitan Justiziaren etorkizuna izenburupean emandako hitzaldia-
ren edukia azaltzea da jarraian datozen lerroen helburua, labor bederen. Espainiako Justizia Administrazioaren alderdi esanguratsuenak eta hauen inguruan daukan iritzi pertsonala azaldu zituen Donostiako agerraldian.

a continuación se expone la esencia de la conferencia pronunciada por la magistrada Margarita Robles en el transcurso de su intervención en el ciclo Forum Deusto, bajo el título de El futuro de la Justicia, dentro de la cual analizó los principales aspectos de la Administración de Justicia española desde un punto de vista subjetivo.

an expose ensuite la nature de la conférence prononcée par Margarita Robles, magistrat, au cours de son intervention dans le cycle Forum Deusto, sous le titre de El futuro de la Justicia (L'avenir de la Justice), dans lequel elle analysa les principaux aspects de l'Administration de Justice espagnole d'un point de vue subjectif.

1. Sarrera. 2. Botere Judiziala, egun. 3. Botere Judizialaren eta Exekutiboaren arteko harremanak. 4. XXI. mendeko gaizkiletza. 5. Nazioarteko Auzitegi Penalak. 6. Hiritarrek Botere Judizialari buruz daukaten iritzia. 7. BJKOko kideen hautaketa. 8. Botere Judizialaren deszentralizazioa. 9. Euskalduntze prozesua.

1. Sarrera

Txalogarria deritzot *Forum Deusto*-k duela hamar urte abian jarritako ekimenari. Hitzaldi saio bat antolatzeak uste baino lan eta burukomin handiagoak sortzen dituela jakinik, orain artean txukun asko ibili direla-eta, zorionak eman behar antolatzaileei.

Biurteko honetarako hautatutako zikloak *Mundu aldakor honen argi-ilunak* dauka izenburutzat, horrekin gaurko gizarteak politika, solidaritatea, ekonomia, erlijioa, artea eta abarretan izan dituen aldaketan inguruan gogoeta egiten laguntzeko asmoz. Egitaraua osatzen duten hizlari eta gaiak ikusi besterik ez dago, esparruaren aniztasuna eta aztertutakoaren interesa erabatekoak direla konturatzeko.

Aurtengo 2000. urteak berrikuntza bat ekarri du berekin; izan ere, Deustuko Unibertsitateak Donostian daukan Fakultatera zabaldu baitu hegoa *Forum Deusto* saioak. Eta Margarita Robles andreami egokitu zitzaion hitzaldi guztien artean lehena izatea, bere lanbidearekin zuzenean lotutako gaia izanik aztergai: *Justiziaren etorkizuna*.

Ez dago sarrera egiten gehiegi luzatu beharrik, aski ezaguna baita emakume hau. Hitz bitan, gogorarazi dezadan, nolana ere, egun Entzutegi Nazionaleko magistratua dela, eta Barne Ministerioko Estatu idazkari izan zela 1992tik 1996ra bitartean. *Jueces para la Democracia*-ko kide da eta Sabino Arana saria jaso berri du.

Gertutik ezagutzen ditu, beraz, Justizia Administrazioaren indargune eta ahuleziak, eta hain zuzen ere horrexegatik hartu zuen ikuspegi zorrotz eta kritikoa Estatuko hirugarren boterearen gaineko azterketa egiterakoan.

Jardunaldion presidentea den Javier Elzok sarrerako aurkezpena egin ostean eman zitzaion hitza magistratuari, jarraian puntuz puntu jasotzen saiatu naizena azaldu zuela. Aurrez prestatuta zekartzan ohartxoei begiratu beharrik gabe; luzatutako galderei erantzun baino lehen une labur batez isiltasuna gordez; hitz egin baino lehen, esan beharrekoa hausnartuz.

2. Botere Judiziala, egun

Boterea hirutan bana zedila aldarrikatu zuen Montesquieu baroi frantsesak 1748an

“ Justizia Administrazioaren egungo egitura, legeria eta prozedurak XIX. menderako daude prestatuta, eta ez dute XXI.erako balio



idatziriko *Legeen Espirituaz* liburuan: legegilea, exekutiboa eta judiziala. Filosofia horri heltzen diote hain zuzen ere Zuzenbidezko Estatuak. Bada, boterearen hiru adar horien artean, Judiziala da seguraski zama handiena daukana, bera baita Konstituzioetan jasotako arau eta printzipioak eraginkorki gauzatzeko direla bermatzearen arduraduna.

Inolako ezaugarriarik baldin badauka, bere independentzia da, zalantzarik gabe, azpimarratu beharrekoen artean lehena. Legedira baino ez da menekotuko, eta erabateko inpartzialtasunez jardungo du erabakiak hartzeko orduan, eragin mota orotatik aske.

Labur-labur esandako hau, ordea, ez da nahikoa. Nahiz eta egia izan teoriarik horrela aritu behar duela, Justiziak garaiarekin batera egin behar du aurrera, egoera berriei moldatuz. Espainiaren kasura etorritik, gaur egungo Justizia Administrazioari lehen begirada bat bota bezain laster nabari daiteke atzean gelditua dela gizarteak izan duen garapenaren aurrean, eta ez dela inolaz ere gainerako arloak dabiltzan autopistan sartu. “Justizia Administrazioaren egungo egitura, legeria eta prozedurak XIX. mendeko daude prestatuta –dio Roblesek–, zaharkituta daude erabat, eta ez dute XXI.erako balio. Oso delitu zehatzak egiten dituztenentzat eta partikularren arteko gatazkak konpontzeko dago pentsatuta. Baina gizaldi berriak egoera eta arazo berriak ekarri ditu berekin, eta XIX. mendean aurreikusteekin ziren botere politiko nahiz ekonomiko erraldoiak sortu dira. Tamalez, Justizia Administrazioak bere eskura daukan bitartekoak ez dira kasu horiek aztertu eta epaitzeko aproposak”.

Azken urteotan epaile eta magistratuak prentsan agertzen diren maiztasunari buruz, eta inolako protagonismorik-edo ote daukatenaren inguruan, ez du “epaile izardunik” (*jueces estrella*)



dagoenik uste; "aitzitik, eskuetara heltzen zaizkien kasuak dira, izatekotan, izardunak. Beraz, kasu horretaz arduratzea egokitu zaion epailea, edonor delarik ere, komunikabideetan agertuko da. Ez oster epaileak berak hala nahi duelako, inguruabarrek horretara bultzatuko dutelako baizik".

3. Botere Judizialaren eta Exekutiboaren arteko harremanak

"Gobernu demokratiko guzti-guztiek goraipatzen dute Botere Judizialaren independentzia. Baina kanpora begira baino ez dute egiten diskurtso politiko hori, berez ez dutelako independentzia hori gogoko. Mesfidantza handia dago hitz horien atzean", zioen Margarita Roblesek.

Alegia, agintariek nahiago luketela Auzitegietan beren interes propioak babestu eta defendatzen direla ikusi; independente izateak, ordea, eskuartera iristen zaizkien auziak eskusiboki Zuzenbidearen arabera ebaztea suposatzen du, eragin, interes nahiz asmo zehatz orotatik aske. Zenbat eta inpartzialtasun handiagoa egon, demokratiko eta Zuzenbidezkoagoa izango da Estatua, eta, hein berean, orduan eta zorrotzagoa izango Justiziaren begia. Gobernu osatzen duten kideentzat ere bai, jakina. "Barru-barruan, inolako gobernuri ez zaio Botere Judizial independente eta sendoegirik interesatzen, mugatuta ikusten duelako bere burua".

Nolanahi ere, Botere Exekutiboak oso ahalmen handia dauka Hirugarren Botere deiturikoaren aurrean: indultua emateko eskuduntza, alegia. Hori dela-eta, gatazka baten aurrean Auzitegiak edozein epai ematen duela ere, azken hitza emateko eskubidea dauka Gobernuak bere esku, hark esandakoa indarrrik gabe utz dezakeela. Kasu batzuetan ulergarria eta beharrezkoa iruditzen bazaio ere, zenbaitetan "sutan jartzen gara epaileok, urtetako lanak eman dizkigun erabakiren bat hartu ostean, gure kezka eta izerdi guztiak pikutara bidaltzen dituen erabaki desberdin bat ematen dutelako".

"Politikariek, oro har, ez dute beren ekintzak gainbegiratu dituen inoren ikuskaritzapean egon nahi. Mugarik gabeko boterearen egarri dira". Horregatik, askok ezin dute epaileek kontrol hori egikaritzeko daukaten legitimazioa ulertu. Politikariak herriak zuzenean hautatzen ditu, ez ordea epaileak. Zertan oinarritzen dira toga beltzez jantzitako gizon-emakumeak hiritarrek sufragio unibertsalez lau urteko eperako bozkatutakoak epaitzeko? "Epaileoi legitimazioa Legeak ematen digula adierazi behar zaie horrelakoei".

Bai epailetzaren eta baita politikaren munduan ere murgilduta ibili izanagatik jasotako

"Gobernu demokratiko guzti-guztiek goraipatzen dute Botere Judizialaren independentzia, baina mesfidantza handia dago hitz horien atzean"

esperientzia ikusirik, argi utzi nahi izan zuen ez dagoela esaterik "Justiziaren arloan guztia garbia eta zuzena denik, eta politikan, aldiz, ustel eta iluna. Batak bezala besteak, biek dauzkate beren alderdi on eta txarrak".

4. XXI. mendeko gaizkiletza

Gizakia klonazioak egitera iritsi den garaioan, itxura berriak bereganatu ditu gaizkiletzak, globalizazioaren eskutik batik bat; hots, nazioarte mailako sare iheskorak sortu eta ugalduta izana dira azken urteotan Justizia Administrazioari burukomin gehien sortarazten dizkion arazoetako bat. Orain arte halakorik ezagutu ez duenez, ez dauka berrikuntza hauen aurrean jarduteko esperientzia nahiz lan tresnarik, Justiziaren egiturak XIX. mendeko mekanismoei jarraitzen baitie. Horregatik esan ohi da behar-beharrezkoa dela aspaldiko garaietako egoerak konpontzeko aurreikusita dagoen Justizia Administrazioa milurteko berriak berekin ekarri dituen delitu eta falta berriak eraginkortasunez epaitzeko eguneratzea.

Naziozgaindiko erakundeak sortu eta sendotu ahala, gainera, kide Estatuak beren artean jarduteko moduez erabaki berriak hartu beharra aldarrikatu zuen. Hala, esaterako, "erabat burugabea" deritzo, Pinocheten kasuari aipu zuzena eginez, "Europar Batasuneko kide den Estatu batek beste kide Estatu bati estradizioa eskatu behar izatea, noiz eta eremu judizial bateratu baterantz jo nahi denean".

Gizartea etorkizunari begira aurrerakuntzetan sartuta dagoen bitartean, erakundeak nazioartekotzen eta teknologia berriak bide ezezagunak urratzen ari direla, duela bi mendeko tresnak erabili behar dituzte epaile eta magistratuak, gero eta handiago nahiz



Margarita Robles magistratua.

kontrolaezinago diren botere politiko eta ekonomikoek egindako delituei aurre egiteko. "Garaiean garaikoa. Ez dut ukatuko orduko delituak aztertzeko egokiak zirenik, baina Justiziaren kalterako da esparru hau bere horretan, eguneratu gabe, mantentzea. Premiazkoa da aldaketei ekitea".

5. Nazioarteko Auzitegi Penalak

Nazioarteko Auzitegi Penalak nazio desberdinetako epailez osatuta daude, nazioaz gaindiko eskuduntzak baitauzkate. Hartara, Estatuak hauen esku utzi behar dute beren subiranotasunaren zati bat, eta, aipatu bezala, ez dute batere gustukoa. Honen aurrean, zera dio Margarita Robles magistratua: "Gobernuak, kanpora ematen duen itxura guztiaren arabera, nazioarteko erakunde hauen alde lanean ari dela dirudi, baina, azkenean, beti aurkitzen du proiektuak aurrera eramatea oztopatzeko aitzakiaren bat". Gainera, egun lanean ari diren nazioarteko auzitegiek ematen dituzten ebazpenek, itzal handia eman nahi zaien arren, balio sinbolikoa baino ez daukate.

Makina bat arazo sortzen dira auzitegiok eratzeko orduan, baina horien guztien artean nagusiena, eta nolabait gainerako guztien iturburutzat jo daitekeena, "Estatuak esku hartzeko daukaten grina itsua da"; hots, gobernu guztiak eduki nahi dute bertan bere botere exekutiboak aukeratuko epaile bat, horrela, nola edo hala babestuagoak ikusten baitituzte beren Estatuaren interesak. Zer pentsatzekoa ematen du honek: ez al dute ba epaileek —lan egiten duten auzitegi nahiz epaitegiaren izena edozein izanik ere, eta *norma normarum* den Konstituzioaren esanei jarraiki— independente eta inpartzialak izan behar?

Nazioarteko Auzitegi hauen eskumenpean leudekeen Estatuak laket ez duten beste alderdi bat, gainera, ebazpen hauen gainean indulturako inolako eskubiderik ez edukitzea da. Horregatik

guztiagatik, badaezpada ere, ez dira auzitegi hauei botere eta eskuduntza garrantzitsuegirik ematera ausartzen; kondarrak baino ez.

6. Hiritarrek Botere Judizialari buruz daukaten iritzia

Estatistikek aditzera ematen dutena egia baldin bada, hiritar espainiarren %80 ez da Botere Judizialarekin fidatzen. Kezkati agertu zen Robles andrea erreallite horren aurrean: "datu benetan larria da".

Botere Judizialarekiko hain iritzi kaskarra izate horretan, eragin zuzena omen du azkenaldian jazo den "politikaren judizializazioak eta epailetzaren politizazioak", bi esparru hauetako bakoitzak bere mugak gainditu eta bestearenean sartu nahi izateagatik egindako akatsengatik. "Bakoitzak dagokion eremura mugatu beharko luke: epaileak Justiziara eta politikariak politikara, bestearen arazoetan esku hartzeko tentazioan erori gabe". Bestetik, politikariei delituren bat leporatuz gero, "beste edozein pertsonak bezala, Auzitegietara joan beharko dute. Hala ere, konnotazio politikoa luketen auziak Parlamentuan bertan konpondu beharko lirarteke ene ustez".

Jakina, ez da gauza erraza gizarteak Hirugarren Botere honekiko fedea berreskuratzea, baina, bere irudiak hobera egin dezan, Justizia Administrazioa sakonetik aztertu eta konponbide bideragarrietan pentsatzen hasi beharra dago; hala nola, epaileek kasuak ebazteko daukaten epeak laburtuz, organo judizial berriak sortuz, eta abar. Nolanahi ere, "bada beste gauzen gainetik azpimarratu nahiko nukeen ideiarik: arazotik errotoik heldu eta behin-behineko irtenbide baten ordeztu benetan aproposena dena eman nahi baldin bazaio, ezinbestekoa da Estatu osoaren interesak hartzea kontuan, eta ez une bakoitzean agintean dagoen alderdi politikoak dauzkanak. Aldi oro neurriak aldatzen ibiltzeak nahaspila besterik ez du sortzen, eta berriz ere lehenagoko zulora erortzeko arriskua dago".

Bada gizartean haserrea eragiten duen Justizia Administrazioaren beste alderdi bat ere: Legea guztiontzat berbera izan arren, epaileek modu bateratu batean ez aplikatzeak sortzen duen segurtasun juridiko eza. Zaila da oso hiritarren ikuspegitik ulertzen; ostera, epaileen independentziarekin lotu behar da zuzenean. Horrek ezin du, hala ere, bakoitzak bere erara epaitzeko aitzakia izan. "Lankideok geure artean egoera zehatz baten aurrean daukagun iritzia azaltzen dugunean, bakoitzak ikuspuntu desberdina izaten dugu, eta nork bereari heltzen dio". Horregatik, ulertzen du antzekotasunak daukaten kasuei epai desberdina emateak hiritarren artean sor dezakeen kezka, amorrua eta noraeza, eta epaile nahiz magistratuen boterea

erabatekoa eta mugagabea izan ez dadin, beharrezkotzat jotzen ditu nolabaiteko ikuskaritza eta kontrola. Ahal den heinean, kasu berdintsuei emandako ebazpenen artean hainbesteko alderik izan ez dadin irtenbiderik egokiena epaileei trebakuntza egokia ematea dela irizten du, "betiere, bakoitzaren independentzia mugatuko ez duena".

Justizia Administrazioaren moteltasunari dagokionez, berriz, prozesuak eskuetara heltzen zaizkienetik amaiera ematen zaien arte igarotzen den denbora luzeraren aurrean, prozedurari buruzko arauak erreformatzearen alde azaldu zen, ahozkotasuna sustatuko luketen berriak aurreikusiz. "Askotan lotsa ematen dit ebazteke hainbeste denbora daramaten kasuak aztertzeak". Eredugarria omen da 1992an, Joko Olinpikoen garaian, Bartzelonan izandako epaiketa azkarren esperientzia, eta zabaldu egin beharko litzatekeela iruditzen zaio.

7. BJKOko kideen hautaketa

Partidu Popularrak martxoaren 12ko hauteskundeetarako aurkeztutako programan esandakoaren arabera, epaileek arduratu beharko lukete Botere Judizialeko Kontseilu Orokorreko kideak (CGPJ) aukeratzeaz, Estatu osoan dihardutenen Gobernu organoa osatzeko. Robles ez dator ideia horrekin bat, prozedura horrek epaileen korporatibismoa sustatuko lukeela argudiatuz, "eta hori inongo arlotan ez da ona". Horren ordez, eskuduntza hori Parlamentuari aitortzea izatea litzateke bere ustez aukerarik egokiena, horretarako hautagai bakoitzak aurrez bere programa azalduz, konfidantza eta zentsura mozioak aurkezteko aukerak emanez, eta beren jardunean kontrol baten menpe arituz.

8. Botere Judizialaren deszentralizazioa

Justizia Administrazioak espainiar Estatuan daukan eredia baino, nahiago du Estatu federalek jarraitzen dutena. Horren harian, Justizia alorreko eskuduntzak, esklusiboki Estatuarenak izan beharrean —Konstituzioko 149.1.5 artikulua esandakoaren arabera—, deszentralizatu egin beharko liratekeela adierazi zuen; hau da, egun Auzitegi Gorenak eskuartean daukanak murriztu eta erkidego autonomoetako Justizia Auzitegi Nagusienak areagotu.

Entzutegi Nazionalari buruz ere egin zuen hitzik. Hasiera batean terrorismoaren aurkako delituak epaitzeko sortu baldin bazen ere, "hanka sartzeko inolako beldurrik gabe, argi eta garbi esan dezaket Euskal Herriko auzitegiek nahikoa gaitasun, erantzukizun eta profesionaltasun daukatela terrorismoko delituak ebazteko". Entzutegia, nolana ere, ez litzateke hala

gertatzekotan esku hutsik geldituko, beregain izango bailituzke nazioarte mailako delituen kasuak (delitu ekonomikoak eta narkotrafikoa, bereziki).

9. Euskalduntze prozesua

Gure euskararekin lotura zuzena duen galdera: zer nolako trataera jaso beharko lukete Autonomia erkidegoetako hizkuntza koofizialek auzitegi eta epaitegietan? "Bakoitzak bere hizkuntza erabiltzeko eskubide guztia dauka. Izan ere, Botere Judiziala hiritarren eskura dagoen zerbitzu bat da, eta hiritarrendik gertu egon beharra dauka. Epaileok, botere bateko kide izateaz gain, funtzionarioak ere bagara".

Iritzi hori azaltzeko bere esperientzia hartzen du abiapuntutzat, epaile gisa eman zituen lehenengo urteetan Leridako herriska batean izan baitzen lanean, non jendea, gazteleraz ez, baizik eta katalanez adierazten zen. "Sekula ez dut zalantzan jarri katalanez aritzeko eskubide osoa zeukatela. Eta han ikusitakoa beste edozein leku eta hizkuntzara zabal daiteke".

Eta, zer dio Justizia Administrazioan dihardutenek lekuan lekuko hizkuntza ofizialkidea jakiteari buruz? Inola balioetsi beharko ote al litzatekete? "Jakina. Lehenetsuna eman beharko litzaioke".